

Euskararen etxea

Memoria



AURKIBIDEA

1. Aurrekariak

2. Astigarraga: oinarrizko kokapen soziolinguistikoa

3. Premisa bikoitza abiapuntu

4. Kokapena eta deskribapena

5. Hasiera berri bat

5.1. Zergatik emakida bat?

6. Jarraipena

1. Aurrekariak

Mende honen amaierarako, mundu osoko hizkuntzen erdiak desagertzeko arriskuan daude Unescoren arabera. Eta euskara ez dago salbu: egoera zaurgarrian dagoen hizkuntza gutxitua da gurea.

Euskarak biziraungo badu, direnak eta ez direnak beharko ditugu, baliabide guzti-guztiak berreskurapen eta normalizazioa prozesua bururaino eramateko. Izan ere, azken hamarkadetan euskararen biziberritze prozesuaren bueltan egindako ekinaldiak hamaika izanagatik, hauxe da baieztapen gordina: euskarak minorizazio gorrian jarraitzen du.

“Noraez gisako garaiotan, beste bultzada bat behar du euskararen-indarberritze prozesuak, eta eraberritze bat: errealitate berriari erantzuteko ikuspegia, euskara gaurko eta biharko Euskal herrian irudikatuko duen estrategia. Euskararen amets berritu bat garatzea, finean”.

Iñaki Lurrebasok eta Garikoitz Goikoetxeak lau eskutara idatzitako “Esnatu ala Hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan” liburutik ateratako aipua da.

XXI. mendearen lehen laurdena igarota, hitzetik hortzera darabilgu larrialdi linguistikoa. Piztu dira argi gorri batzuk eta sumatzen dira ziklo-aldaketa baten zantzuak ere. Hizkuntza-larrialdiaz edota euskararen bidegurutzeaz dihardugu. Testuingurua eta koiunturak ez dirudite aldekoenak. Inork ez zuen esan bidea erraza izango zenik. Asko eginagatik, gehiago dago egiteko. Euskararen geroari dagokionez, urte eta hamarkada erabakigarriak izango dira datozenak.

Astigarragara etorrira, Astigarragarantz Legegintzaldi Planean (2023-2027) Udalak bere egiten du euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunea eramateko erronka. Ildo horretan, Astigarragako egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza-politika berezitua garatuko da datozen urteetan; euskararen indarberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartuz eta herritar guztien hizkuntza-eskubideen alde eginez.

Euskararen erabilera indarberritzen jarraitzeko AROA marko estrategikoa baliatuz, 2024an landu zen 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoa. Udalerrri mailako ziklo estrategiko berriari erantzuteko lanabes eta gida-lerro printzipala da.

Plan estrategiko horretako helburuak lortzeko ezinbestekoa da, udalaren jardunaz gain, herritarren saretzea, ahalduntzea eta lankidetzeta eta hori artikulatzera dator, hain juxtu, orriotan dakargun proiektua, Euskararen Etxea. Udalaren interes orokorreko proiektua da, beraz, azken jomuga euskararen normalizazioa duen proiektu hau.

Euskararen biziberritzea ardatz eta herri kohesioaren alde, funtsezkoa eta baliotsua izango da herri-topaleku berria: batez ere, bide-orria herriko elkarte, eragile eta herritarrekin esku esku jorratu eta garatzeko aukera eskainiko duelako. Zentzu horretan, **euskararen indarberritzean diharduten astigarrar guztientzat izan dadila Euskararen Etxea bizi-amets berritu!**

Laster amaituko dira Nabarra Oñatz 11ko lokala egokitzeko lanak eta Udalak administrazio emakiden esleipenaren bidez gauzatu du ekipamendu berrituaren erabilera. Horretarako, “Astigarragako Euskararen Etxea” izeneko proiektua prestatzen ari da. Proiektu hori Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege dekretuaren 84.artikuluak eskatzen du, eta memoria hau horren parte da.

2. Astigarraga: oinarrizko kokapen soziolinguistikoa

Astigarraga Gipuzkoa ipar-ekialdean dagoen udalerrri bat da eta Donostialdea eskualdean dago, Buruntzaldean. Buruntzaldea sei udalerririk osatzen dute: Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil eta Andoainek. Donostia hiriburuko erdigunea 7 kilometrora dago. Hala ere, Donostiako Martutene auzotik kilometro bakarrera dago, eta historikoki lotura handia izan du bai auzo horrekin, bai hiriburuarekin.

- **Kokapen demografikoa**

Ezohiko eta aparteko hazkundea izan du Astigarragako biztanleriak XXI. mende hasierako lehen laurdenean. Izugarri handitu da herria: 2000. urtean 3.400 biztanle inguru izatetik, ia 8.000 biztanleko langara iritsi da udalerrria. 2026ko martxoan, 7.939 herritar daude errolatuta Astigarragan. 25 urtetan, biztanleria bikoiztu baino gehiago egin da. Donostialdeko gainerako udalerriekin alderatuta, biztanleriaren igoera tasa handiena izan duen herria da.

Biztanleria etengabe hazi da eta, gainera, biztanle gazteak dira gehienak. Neurri antzekoa duten Gipuzkoako gainerako udalerriekin alderatua, bertan izan da jaiotza tasa handiena. Ondorengo taulan argi ikus daiteke:

Astigarragako jaiotza tasa, antzeko neurria duten Gipuzkoako gainerako udalerrietako tasarekin alderatuta (2000-2018).

UDALERRIA	JAIOTZA TASA (%)
Astigarraga	13,28
Aretxabaleta	9,14
Deba	6,93
Lazkao	7,67
Lezo	8,12
Mutriku	8,57
Orio	9,15
Urnieta	5,80
Urretxu	5,18
Usurbil	7,47

Iturria: Udalmap_2019. Siadecok landua.

Inguruko herrietan biztanleria igoera handiena izan duen herria ere izan da Astigarraga eta horrek guztiak ezinbestean izan du isla bertako egoera soziolinguistikoan.

- **Kokapen soziolinguistikoa**

2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoan sakon aztertzen da Astigarragako egoera soziolinguistikoa. Datu demolinguistikoek gain, euskararen ezagutza eta erabilera datuak xehetzen dira, esparruz esparru, bilakaera-joerak aurkeztu eta uneko egoeraren diagnostiko-argazki bat ateratzeko. Laburbilduz, hona dakartzagunak uneko egoeraren goiburu nagusienak dira:

- Azken 20 urteetan, 5 puntu egin du gora euskararen ezagutzak. Ia haur guztiak dira euskaldunak eta baita gazteen %80tik gora ere.
- Erabilerari dagokionez, Soziolinguistika Klusterraren bost urteroko kale-erabileraren datuek argi-ilunak dituzte; azken bi neurketen (2016-2021) artean 7 puntuko jaitziera izan da eta kale-erabilera % 30 inguruan finkatzen ari da (10 elkarrizketatik 3 soilik dira euskaraz).
- Haur eta gazteak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak, baina haurren artean inoizko daturik baxuenak bildu ziren azken neurketan. Gazteen kasuan, aldiz, gorantz egin du erabilerak. Adi jarraitu beharreko joerak dira, horiek markatuko baitute etorkizuneko euskararen erabilera herrian.
- VII. Inkesta Soziolinguistikoaren baitan, herritarren lehen hizkuntza aztertzen badugu, astigartarren herenak baino gehiagok du euskara lehen hizkuntzatzat. Alabaina, euskararen ezagutza igo egin den arren, lehen hizkuntza euskara duten herritarren ehunekoia jaitzi egin da eta lehenengo gaztelania jasotzen dutenena, aldiz, igo.
- Etxeko hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, euskaldunak diren familien etxeko hizkuntza gero eta gutxiagotan da euskara (20 urtetan 12 puntu baino gehiago jaitzi da). Nahiz eta etxean euskaraz mintzatzen diren herritarrak 2001ean baino gehiago izan, proportzioan gaztekeraz aritzen direnak askoz gehiago dira. Egun, astigartarren laurdenak baino gutxiagok du euskara etxeko hizkuntzatzat.

Azken finean, euskaldunen profila aldatzen ari da eta aldea handitzen ari da ezagutzaren eta erabileraren artean. Euskararen ezagutza-maila altua da herrian eta horrek, aldeko olatu eta sustapen lan egoki baten bitartez, erabilera datuak hobetzeko aukera eskaintzen digu.


3. Premisa bikoitza abiapuntu

Premisa bikoitza dugu abiapuntu. Alde batetik, Astigarraga udalerrri euskalduna den heinean, kontzientziaz eta konpromisoz aritzea dagokigu; bestetik, udalerrri guztira hedatzeko eta eragin-eremu berriak irabazteko, agerikoa da erreferentziazko erdigune baten premia.

Astigarraga, udalerrri euskalduna.


Zer da udalerrri euskalduna? UEMAn sartu ahal izateko irizpidea hartuko da aintzat udalerrri euskalduna zer den zehazteko. Alegia, udalerrrian euskararen ezagutza-indizea %70 baino handiagoa izatea. Honela kalkulatzen da indize hori: udalerrriko euskaldunen ehunekoari gehitzen zaio ia euskaldunen ehunekoaren erdia.

2021eko zentsuaren arabera, 129 udalerrri euskaldun daude EAEn; 251 udalerritatik %51 pasatxo dira euskaldunak. Gero eta gehiago dira udalerrri euskaldunak: 1981ean 97 udalerrri baino ez zuten gainditzen %70eko euskararen ezagutza-indizea. Nabarmena izan da 40 urtetako bilakaera, baita biztanlez ere: 1981ean 201.000 herritar bizi ziren udalerrri euskaldunetan, eta 2021ean, 369.000.



Erabilerari erreparatutako Astigarragaren kokapen soziolinguistikoa egingo bagenu, ordea, galdera hau da: zein neurritan da Astigarraga euskalduna? Galdera horri erantzuteko, egokia da ondorengo grafikoa:

A.5 Astigarragako euskalduntasuna Hego Euskal Herrian eta Gipuzkoan testuinguratzan, 2021. (irizpidea: hurbileko erabilera sintetikoa)



Iturria: UEMak landua, biztanleria zentsuetatik (EUSTAT, NASTAT) eta kaleko erabileraren neurketetatik (Soziolinguistika Klusterraren datu basea) abiatuta, tartean erregresio-teknika erabilia. Ikus metodologia oharrak.

UEMAk 2025eko ekainean landutako Astigarragako koaderno demolingustikotik hartutakoa da. Ezkerreko zutabeen euskara-erdarek udalerrian duten pisua adierazten da, erabilera oinarrituta. Beste bi zutabeetan, aldiz, Astigarragaren kokapen erlatiboa egiten da: Euskal Herriko eta herrialdeko testuinguru kontuan hartuta, Astigarragan baino euskaldunago edota erdaldunagoetan bizi diren herritarren kopuruak zehazten dira.

2025eko otsailaren 25ean aurkeztu berri du Lurralde Estrategia UEMAk, lurgune euskaldunena euskararen indarberitzearen motor izan dadin. Eremu bakoitzaren errealitate soziolinguistikora egokitutako hizkuntza politikak garatu behar badira ere, lurgune euskaldunenari motor eta lidergo rola aitortu behar zaiola jasotzen du proposamenak. Izan ere, euskara irradiatzen du gainerakoetara: lurgune euskaldunena gainerako eremuen euskalduntzerako eta euskararen indarberitzerako baliabide estrategikoa bihurtu behar da. Martin Aramendi UEMako lehendakariak aurkezpenean aldarrikatu bezala, “udalerrri euskaldunek izan behar dute euskalduntzearen motor”.

Horrenbestez, Astigarragak badu motor eta bide-erakusle izateko bizi-indar eta ardura. Alegia, Astigarragatik, har dezagun herri euskaldun batean bizi garenaren kontzientzia, dagokigun ardura eta erantzukizunetik.



Euskararen Etxea; arnagune soziofuntzional berria.

Etorkizunean, astigartar guztiek euskaraz jakingo badute eta normaltasun erabatekoz euskaraz biziko badira, Euskararen Etxea izan bedi norabide bikoitzeko hauspo. Batetik, Astigarragako euskaltegiaren egoitza berria izango da, euskararen ezagutzaren erabateko unibertsalizazioa helburu. Bestetik, euskara normaltasunez, oztoporik gabe eta eroso erabiltzeko arnaguneak sustatzeko langunea izango da. Hizkuntza biziberritzeak ezinbestekoak ditu toki, herri eta arnagune geografikoak, baina baita zeregin eta funtzio berriak ere; arnagune funtzionalak, alegia. Alabaina, arnagune soziofuntzionalak antolatu, babestu eta zaindu egin behar dira, eragile sare eraginkor bat artikulatuz. Egiteko hori du Euskararen Etxeak.

Euskararen Etxea bada, nolabait, hizkuntza-komunitatea ardatz duten politika publikoen garapenaren isla. Udalerri euskaldunei eta arnagune soziofuntzionalari euskararen normalizazioarako dute balio estrategikoa aitortuta, Astigarragako Udaleko Euskara eta Hezkuntza sailetik udalerraren garapenera bideratutako baliabide estrategiko berria da.

Euskararen Etxeak, herri mailan arnagune sozial eta funtzionalak sustatuko dituen, euskarari eskaini ahal izango dizkio erabilera-handitzea, prestigioa eta transmisiorako berme-baldintzak.

Geroz eta eleanitzagoa den testuinguruan, euskarak erabilera eremu sendoak behar ditu. Ez da nahikoa jendeak euskara ulertzea edo ikastea; egunero, bizitzako funtzio guztietan normaltasunez eta naturaltasunez erabiltzeko oinarri sendoak behar ditu. Eta hizkuntza biziberritzeko prozesuak ezinbestekoak ditu euskara nagusi izango dituen tokiak nahiz zereginak: arnaguneak; geografikoak edota funtzionalak. Horren sustapena giltzarri da euskara normalizatzeko eta langintza horretan ezinbestekoa da herritar eta eragileen artikulazioa.

Euskaraz bizi eta belaunaldien arteko transmisioa indartzeko, garrantzitsua da euskarari prestigioa emateko herriko zerbitzu, espazio eta ekipamendu publikoetan euskara presente egotea. Bestela esanda, hizkuntza erabilgarri dela ikustea.

Eta horretarako, udalerrria ingurune linguistiko babestu izateko, beharrezkoa da ardatz nagusi bat, aktibo printzipal bat. Erdigune bat. Etxe bat, tokiko administrazioa eta euskalgintza batuko dituen.

4. Kokapena eta deskribapena

Nabarra Oñatz 11 helbideko lokala (Astixiki 1) bi ikasturtez erabili du Astigarragako Herri Eskolak, eskola handitzeko obrak egiten ziren bitartean. Orain, eskolako handitzea amaituta, martxan dira egokitzapen lanak, Astigarragako Euskararen Etxea bilakatzeko.

Azken urteetan, ez zaio bitarteko egokienekin erantzun udalerriko euskararen irakaskuntza beharrei. Izan ere, AEK-ko euskaltegiak bi espaziotan sakabanatuta garatu izen ditu bere eskolak; Kale Nagusia 48an kokatutako Kultur Etxe zaharreko hainbat espaziotan eta Nabarra Oñatz kaleko beste lokal batean.

(ikus VII. eranskina: planoak)

Azken urteetan, dirulaguntza izenduna bideratzeko Udalaren eta Astigarragako AEKren artean sinatutako hitzarmenean, horrelaxe jaso izan da, hitzez hitz:

“Udala euskararen irakaskuntzarako behar diren bitartekoak eskaintzen ahaleginduko da Astigarragako euskaltegiaren zerbitzua ahalik eta zabalena, egokiena eta eraginkorra izateko eta Astigarragako herritarren beharrei erantzuteko”.

Behin egokitzapen lanak amaituta, ekipamendu berrituak behar bezala erantzungo die euskaltegi-jardueraren beharriari. Ondo bidean, 2026-2027 ikasturtea egoitza berrian hasiko dute herriko euskaltegian dabilzanek.

Halaber, eta euskaltegiak haratago, ekipamendu berria ez da hobekuntza tekniko soilak. Orain arte bideraezinak ziren eta lan-dinamikak eta estrategia berrituak esploratzeko abagune berri baten aurrean gaudela esan daiteke.

Kokapenari dagokionez, herriaren erdigune samarrean dago kokatuta. Gertu ditu parkea, ingurune berdea eta hezegunea. Hizkuntza-ekologia binomiotik edanez, luze jardun gintezke ekosistema aberatsaz edota mikro-erreserba izaeraz.

Kokapenaz haratago, aurreikusitako jardunerako, neurri-neurriko soinekoa dela esan daiteke. Izan ere, egingo den egokitzapenari esker, euskararen etxeak 339 m²-ko azalera eraikia izango du. Komun, sukalde, office, biltegi eta instalazio-gela batez gain, euskaltegiaren jarduna kon-tuan hartuta, lau gela eta irakasle-gela eta autoikaskuntzarako ikasgela bat ere izango ditu. Azalera erabilgarria 304,42m²-koa izango da.

BEHEKO SOLAIRUA / PLANTA BAJA	
GELA / ESTANCIA	AZALERA / SUPERFICIE
Sarrera / Entrada	16,87 m ²
Autoikaskuntzarako Ikasgela / Aula autodidactica	18,44 m ²
Biltegia / Almacén	1,48 m ²
Komuna 1 / Aseo 1	4,42 m ²
Komnaurrea / Anteaseo	3,10 m ²
Komuna 2 / Aseo 2	2,57 m ²
Korridorea / Distribuidor	7,31 m ²
Ikasgelen aton doa / Vestibulo de aulas	28,75 m ²
Irakaslen gela/ Sala de profesores	24,18 m ²
Ikasgela 1 / Aula 1	23,21 m ²
Ikasgela 2 / Aula 2	24,67 m ²
Ikasgela 3 / Aula 3	24,90 m ²
Ikasgela 4 / Aula 4	29,50 m ²
Aretoa / Auditorio	53,21 m ²
Despentsa / Despensa	2,76 m ²
Sukaldea / Cocina	6,43 m ²
Office	8,94 m ²
Korridorea / Pasillo	7,50 m ²
Biltegia / Almacén	4,19 m ²
Instalazio gela / Sala de instalaciones	11,99 m ²
AZAL ERABILGARRIA / SUPERFICIE UTIL TOTAL	304,42 m²
AZAL ERAIKITA / SUPERFICIE CONSTRUIDA TOTAL	339,97 m²

Horrelaxe deskribatzen da Jon Unai Urruticoechea Gutierrez arkitektoak, 2025ko apirilean aurkeztutako L-2403 egokitzapen lanak egiteko obra-exekuzio proiektuan.

2.1.- JARDUKETA-UNITATEA.

2.1.1.- KOKAPENA, LURZATIAREN KATASTRO-DESKRIBAPENA

Proiektua 5196999U hiri-lurzatian dago, Nabarra Oñatz. kaleko 11. zenbakian dagoen eraikinean. Astigarragako (Gipuzkoa) 12. eremuko lurzatian, 8592129 katastro-erreferentziarekin. Lurzatiak forma angeluzuzena du, eta 7, 9 eta 11 atarietako eraikinek osatzen dute azken hori exentua da. Iparraldean, mendebaldean eta ekialdean espazio publikoak mugatzen du, eta hegoaldean 8592128 hiri-lurzatiak.

2.1.2.- LEHENDIK DAGOEN ERAIKINAREN DESKRIBAPENA. EGITURA ETA OSAERA

Proiektuaren eraikinak lurzatiaren 399,00 m²-ko azalera hartzen du, karratua da eta 2000. Urtean eraiki zen, katastroaren arabera. Lokala dagoen eraikinak BS+IV altuera du, eta sotoa ere badu. Bertan dago etxebizitzaren garajea. Gaur egun, merkataritza-erabilera du beheko solairuan, eta bizitegi-erabilera goiko solairuetan. Proiektuaren xede den lokalak 352,65m²-ko katastro-azalera du. Beheko solairuaren osotasuna hartzen du, atariko zatia eta goiko etxebizitzetako komunikazio-nukleoa izan ezik. Lokalak U forma du, eta sarbide nagusia eraikinaren hego-mendebaldeko izkinan dago, apur bat atzera emanda aterpe egiteko.

Kalerako bigarren irteera bat du, hegoaldeko fatxadan ere, atariaren beste aldean. Hegoaldeko eta mendebaldeko fatxadetako espaloiak lokalaren sarrera-kotan daude, baina iparraldekoa eta ekialdekoa maldan daude, eta 2,50 m inguruko kota altuagora iristen dira. Hegoekialdeko izkinan, koten arteko alde hori euste- horma baten eta eskailera batzuen bidez konpontzen da kalean.

Eraikina nahiko modernoa da. Sostengu-egitura hormigoizkoa da, eta solairuan homogeneoki banatutako zutabeetan oinarritzen da. Fatxadek bi akabera berezi dituzte, morteroa eta harrizko plakazko estaldura. Beheko solairu osoa plakaz estalita dago. Arotzeriak metalezkoak eta beira bikoitzekoak dira.

5. Hasiera berri bat

Gordin esanda; minorizazio gorrian dago euskara. Gertuago du hizkuntza-heriotza, euren lurraldean nagusi diren hizkuntzen egoera ohikoa baino. Elebitasun parekide batetik ere urrun dago euskara Euskal Herri luze-zabalean.

Gainera, joerak eta inertziak kontuan hartuta, ahultzera joko du euskarak. Determinazio osoz aritzeko unea da; esku hartu ezean, euskararen aldeko politika sendorik gabe, erabateko galbidea gertu izan genezake mendea amaitzerako.

Udalek funtsezko rola dute euskararen normalizazioan. Eta Astigarragak Udalak, dagokion arduratik, egina du etorkizuneko erronka nagusienak identifikatzeko ariketa. Izan ere, Astigarragarantz partaidetza prozesuaren bidez, 2024.urtean zehar hausnarketa eta eztabaida prozesua bideratu zuen; udalerriko euskararen egoera marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak proposatuz. Aldi berri baterako, estrategia berri bat.

Partaidetza oinarri, udaletik garatu beharreko hizkuntza politiken bide-orria jasotzen da 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoan. Nahiz eta euskararen biziberritzearen aldeko udalaren lanketa ardatz bikoitzekoa izango den; izan ere, udalean bertan euskararen erabilera areagotzeko plana ere onartua da Astigarragako Udalak.

Hala, udalerrira begirako lanketarako, Eusko Jaurlaritzak proposatutako AROA marko estrategikoaren parametrotan lerrokatutako Plan Estrategikoa da hizkuntza-plangintzarako erremintarik nagusiena. Astigarragako euskararen egungo diagnostikoaren ondoren, datorren aldiari begirako erronka eta lan-ildo nagusienak planteatzen dira; 6 ardatzetan antolatuta, guztira, 100 lan-ekimen zehatz baino gehiago jasotzen ditu plan-proposamenak.

Gobernantza da plan estrategikoaren lehendabiziko ardatza. Eta gobernantzaren ardatz estrategikotik, lehentasun osoz, euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eramateko borondatearen isla da Euskararen Etxea. Sinetsirik baliagarria izango dela, eremu instituzional eta sozialaren arteko osagarritasun eta koordinazio-lanak hobetzeko. Herri mailako elkargune berria, euskararen biziberritzearen aldeko ekinari aterpea emateko eta sinergia berriak sortzeko biltoki izango da.

Euskararen Mahaia eratzearekin batera, zeharlerrotasunez hizkuntza politika integral eta berritzaileak lantzeko abiapuntu eta mugarri estrategikoa ere izango da. Hasiera bat.

Horra hor, etorkizuneko dema-harria: hizkuntza biziberritzean, eragune eta gotorleku berri bat hasiera berri baterako.



Euskararen biziberritzearen bueltako ekosistema osoaren erreferentziatzko gunea izango da Astigarragako Euskararen Etxea. Bestela esanda, euskararen herri-ekosistema elikatu eta berpizteko, izan dadila;

- Euskaltegiko ohiko jardunaz haratago, euskararen normalizazio prozesuari buruzko hausnarketak harilkatu eta ekinak gorpuzteko herri-eragile eta norbanakoen babesleku.
- Herriko euskaltzaletasunaren aterpe eta hiztun komunitatea trinkotzeko topagune.
- Hiztunak ahaldundu eta euskararen normalizazioan arituko diren bidaide, partaide eta konplizeen biltoki.

Joerak apurtu, inertziak astindu eta hizkuntza ohituretan eragiteko palankari-lanak egiteko bokazioa du espazioak. Eta herri mailako sakoneko eraldaketa baldin bada abipauntuzko-helburu, hizkuntza normalizazio prozesuaren bultzadarako, hauek izango dira egitasmoaren ezinbesteko izan-nahi eta ezaupide:

- **Egindakoaz baliatu.** Euskararen normalizazioaren bueltan urteetan egindakoa aintzat hartuta eta bidean jositako aliantzak baliatuz egin nahi da aurrera.
- **Elkarlanerako zubiak eraiki.** Udalaren, herriko elkarten, eragileen eta herritarren arteko harremanak sendotzeko aukerak eskaintzera dator gunea berria. Eta zergatik ez, orain arte euskaratik urrun dauden herritar eta kolektiboak erakartzeko ere aproposa izan liteke. Astigarragara etorri berrientzako ere, izan dadila babesleku.
- **Euskaltzaletasuna arnasberritu.** Mugimendua berritu eta harreman –sare berriak erakitzeke eta bide berriak urratzeko parada ezin hobea ere bada. Ez dator ez inor, ez ezer ordezkatzera; sinergia berrien bila, herri mailako ekipamendu berri eta osagarria da.
- **Gogoetarako gunea, eremu ireki eta bizia.** Ardura partekatuak oinarri, lankidetzatik abiatuta, badator eztabaida eraikitzaileei bide emateko leku izatera ere.

Funtzioak, helburuak eta jardun-ildoak:

Euskararen garabiderako gune, **funtzio** hauen sustapena du muin:

BAT EGIN! Herritar guztiei irekia, euskaldun guztiak bat egin eta elkartuko dituen etxea izango bada, lagun beza euskaldunen, euskara ikasleen nahiz herrira etorri berri direnen arteko **harremanak ehuntzen**.

EKIN eta ERAGIN! Proiektuak garatu eta ekimenak landu. Asmoei bide eman eta sortu. Kontzientziak eta dinamika berriak piztu, euskal iruditegia elikatu. Eragileen partaidetzatik, elkar-ekin, eta eragin. Egingo al da elkartzetik interakziora eta elkarrekintzara **jauzi!**

HEDATU! Sorkuntzatik garapenera, eragin eremua zabaltzea ere izango da betekizun. Alegia, piztutako eta aktibatutako hori guztia herrira barreiatu asmoz aritzea; herri kohesioaren alde, herri osorat herri- identitate berri bat **blaituz**.

Azken finean, Astigarragako Euskararen Etxea bada euskararen biziberritzeari loraldi eta bizkortze bat eskaintzeko aukera berri bat. Ildo horretan, helburu asko barnebiltzen ditu proiektuak bere baitan, baina hauek lirategi **jardun-jomuga nagusienak:**

- **BAGA:** Kontzientzia euskaltzalea piztea, elikatzea, sendotzea eta sustatzea Astigarra- gan. Euskaltzaletasuna indartzea eta euskara sustatzearen aldeko jarrera zabaltzea.
- **BIGA:** Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea sustatzea. Herritarren hizkuntza gaita- suna hobetzea eta Astigarra- gan euskal hiztun berriak lortzea. Euskararen ezagutza unibertsalizatzea eta berreuskalduntzea.
- **HIGA:** Euskararen aldeko diskurtsoetik diskurtso egokituera jauzi egitea: euskara urrun sentitzen dutenengana iristeko diskurtso berriak eraikitzea eta hedatzea.
- **LAGA:** Hiztunak aktibatzea; euskaldunen sentsibilizaziotik ahalduntzera, hiztun komu- nitate trinkoa helburu.
- **BOGA:** Herrian zehar euskararentzako arnagune izango diren eremu soziofuntzional berriak irabaztea.
- **SEGA:** Herritarrengan euskararekiko motibazioa eta atxikimendua indartzea: aldeko ja- rrerak zabaltzeko, hizkuntza ohituretan eragiteko eta erabileran nahiz transmisioan nabari diren ahultzeei erantzuteko.
- **ZAI:** Euskaldunak ahalduntzea, euskara indarberritzea eta euskararen garabide osoa erdiestea.

Funtsean, hizkuntza politika integral eta berritzaileak lantzeko aukera paregabea eskainiko du proiektu berriak. Aurretik aipatu bezala, herri erdigune samarrean, kokaleku ezin hobea du txoko berriak; euskara ardatz, herria suspertzeko eta herri-hasiera-berri bati bide emateko.

Ez da erraza aipatutako funtzioak betetzeko eta erronka estrategiko horiei erantzuteko garatuko diren lan-ildo zehatzak aurrez zehaztea. Edozein kasutan, gaur egungo herri mailako euskararen bueltako jarduna kontuan hartuta, hauek lirategi Euskararen Etxearen jiran aurreikusi litezkeen **jardun-ildo nagusienak:**

ASTIGARRAGAKO AEK- EUSKALTEGIA

Euskararen ondorengotzea ziurtatuko bada, jarraitu beharko da helduen euskalduntze- alfabetatzean eragiten. Zalantzarik gabe, euskararen berreskurapenean euskalduntze-

alfabetatzearen eremuan egindakoa izan da ekinbiderik garrantzitsuenetarikoa. Eta aurrerantzean ere ezinbestekoa izango da.

Aitortu eta errekonozitu beharreko lan mardula egin du urteetan Astigarragako AEK-k. Egia esan, herri mailan bada AEK euskaltegiaren jardunarekiko oniritzia eta begirunea. Ahalik eta eperik laburrenean hizketarako gai diren euskaldunak lortzen egindako lanak eta ikasleentzako bestelako zerbitzu osagarriak eskaintzen egindako ahaleginak ekarri du onurarik: Astigarragan euskaraz bizi ahal izateko geroz eta aldeko baldintza gehiago daudela esan daiteke.

Azken bospasei ikasturteotako bilakaerari erreparatuz gero, Astigarragako helduen euskalduntze-alfabetatzearen jarduerak gorantz egin du. Oro har, euskaltegi sare gehienetan jaitsierak izan badira ere, Astigarragan ikasturteko matrikulazioa 100 ikasle bueltan ari da egonkortzen.

Mailak /Urteak	21/22	22/23	23/24	24/25	25/26	Orotara:
A0A0		17	27		10	54
A1A0	6	7		16	9	38
A1A1	7		6			13
A2A1	8	19	8		16	51
A2A2		8	12	23	7	50
B1A2	10		7	9	8	34
B1B1	9					9
B2B1	10	21	20	22	19	92
B2B2	7					7
C1B2	16	23	21	24	20	104
UDA	8	20	8	9	12?	57
Orotara:	81	115	109	103	101	509 ikasle

Beste zenbait arlotan bezala, orain arte asko egin da, eta hemendik aurrera ere asko dago egiteke. Gainera, euskalduntze-alfabetatzea norbanakoaren borondatezko jarduna izatetik, talde eta kolektibo jakinetara hedatzen ari da. Talde horiek behar bezala identifikatzea eta horien beharretara eskaintza egokitzen asmatzea izango da datozen urteetako erronka nagusienetariko bat.

Azken urteetan, euskaltegiaren jarduna ez da baldintzarik egokienetan garatu. Hainbat egoitzatan sakabanatuta, ikasleen beharretara egokitutako irakaskuntza eta ikas-prozesuak eraginkortasunez eskaintzen jarraitzeko zailtasun edo mugak izan dira. Egoitza berriak herriko euskalduntze-alfabetatze jardunaren kalitatea hobetzen lagunduko du, ziur.

ASTIGARRAGAKO EUSKARAREN MAHAIA

2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoa diseinatzeko partaidetza prozesuan zehar, ezinbestekotzat jo zen Astigarragako Euskararen Mahaia sortzea.

2024-2025 ikasturtean zehar heldu zitzaion mahaiaren eraketa prozesuari; Udalaren erabakimenez, Astigarragako AEK-ren gidaritzapean. Prozesuaren emaitza positiboa izan zen; nolabait esatearren, eragileen nahia eta ikuspegia bat zetorren Udalarenarekin. Hala, 2025-2026 ikasturtean martxan jarri da Astigarragan euskararen bueltan lanean ari direnen eragileen bilgunea.

Batzordea eratuta, 2025eko abenduaren 18an egin zen Euskararen Mahaiaren lehen lan-saioa. Otsailaren 19an egin zen bigarren saioa eta maiatzaren 14rako adostu da hurrengo hitzordua. Gainera, ikasturteko hiru lan-saio orokorrez gain, hainbat gai berriaz jorrazteko saioak antolatzea ere bada asmoa ("monografikoak"). Oraindik zehazteke daude gai zehatzak, baina gai konkretu batzuekiko adierazi da interesa dagoeneko.

(ikus VI. eranskina: egokitzapen lanen argazkiak)

Euskararen Mahaiaren helburu nagusia da Astigarragan euskararen normalizaziari dagokionez norabidea adosteko erreferentziatzko gunea izatea; bai eragileek eta udalak lantzen dituzten egitasmoei koheretzia emateko, baita proiektu partekatu berriak sortzeko ere.

2026-2027 ikasturtetik aurrera, Euskararen Etxera leku-aldatu nahi da, zentraltasun osoz, Euskararen Mahaiaren jardun osoa: bilera orokorrak, berriazko lan-saioak, proiektu berriak gorpuzteko bilerak...

HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAK

Berriki jarri da martxan Astigarragako Herri Eskolako ikasleentzat hizkuntza-errefortzuak indartzeko programa. Hutsunea aspaldi indentifikatuta, eta 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoan ere lan-ekimena aurreikusi ondoren, 2024-2025 ikasturtea baliatu zen lanketa egiteko.

Astigarragako Herri Eskolaren errealitatetik abiatuta, neurrira jositako soinekoa osatzeko ahalegina egin da. Ekinaldi berri honen bitartez, Astigarragako Herri Eskolako euskarazko hizkuntza gaitasun nahikorik ez duten Lehen Hezkuntzako bigarren ziklo ikasleei hizkuntza-errefortzua eskaini zaie. Bestelako zerbitzu eta saioen osagarri da zerbitzu berria.

Horrelaxe jaso zen iazko lanketa laburbiltzen den amaiera-memorian:

“Bestalde, atzerritik etorri berriak diren ikasleentzat eta guraso/tutore euskalduna(k) ez dutenentzat/dituztenentzat, eskola orduetan, errefortzuak eskaintzen dituzte. Ordu horiek kredituetatik ateratzen dituzte.: beharren arabera, tutoreek osatzen dute zerrenda eta gelatik kanpo ateratzen dituzte haurrak. Beharren arabera irizpidea badute ere, haurrak guraso/tutore euskalduna(k) badu/baditu, ez zaio errefortzua eskaintzen. Errefortzu hauek HHn eta LHn ematen dituzte.

Arestian aipatutakoaz gain, Eusko Jaurlaritzak HIPI figura ere jartzen du haur-kopuru baten arabera. HIPI figurak atzerritik etorritako haurren beharrei aurre egiteko balio izaten du.

Hala eta guztiz ere, kontuan izanik euskara ikasteko zein indartzeko nahikoa ordu ez direla eta Hezkuntza Sailak ordu gehiago eskaintzen ez duenez, Astigarragako Herri Eskolak nahiz Udalak oso komenigarria ikusi dute aparteko euskara errefortzu-eskolak martxan jartzea; premia duten ikasleek euskara lantzeko, ahal den neurrian, era ludikoan eta dinamikoan komunikazioa landuz eta euskal kulturaz gozatuz”.

Izan ere, euskara biziberritzearen alde, bi erronka nagusi identifikatu dira eskolan; euskararen erabilera bera eta ikasleen euskara-gaitasuna. Geroz eta gehiago dira euskara behar bezala menderatzen ez duten ikasleak. Eta horrek hainbat ikasleren ikas-prozesuan eragin handia du.

Gaur gaurkoz, LH2, LH3 eta LH4 mailetan dabilzan ikasleek dute euskara errefortzu-eskolak jasotzeko aukera. Helburua denez ulermen eta mintzamen gaitasunak indartzea, LH1eko ikasleek ez dute eskolarik jasoko eta LH5 eta LH6ko ikasleak ere programatik kanpo geratu dira, “Bidelagun” laguntza jasotzeko aukera dutelako.

Edozein kasutan, aurrera begira ere euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko asmoz, euskaraz zailtasunak dituzten eta eskolatik kanpo euskaraz hitz egiteko aukera gutxi duten ikasleei euskara hobetzeko ekimenak martxan jartzea aurreikusten da. Izan ere, erronka estrategikoa da Astigarragako euskal elebidun eta elebidun orekatuen ehunekoa handitzea, bereziki gazteena.

Aurrerantzean ere jarraitu beharko da hizkuntza indartzeko programak eskaintzen; daudenak sendotzen, zabaltzen nahiz berriak formulatzen. Horretarako, aukera paregabea eskainiko du Astigarragako Euskararen Etxeak.

ASTINDU EUSKARA ELKARTEA

Herriko euskaltzaleak antolatzeke eta euskaltzaleen aldeko dinamika-eragile bat martxan jartzeko helburuarekin, “Astigarragako Euskalgintza josten” izeneko prozesua bideratu zen 2024ko abenduan.

Astigarragako Udalak Euskaltzaleen Topagunera jo zuen, herriko euskaltzale talde batek herrian euskaltzaleak antolatu eta euskaltzaleen aldeko dinamika-eragile bat martxan jartzeko borondateari bide emateko asmoz.

Topaguneak gidatutako hausnarketa kolektibotik, Astindu Euskara Elkartea loratu da; Astigarragan euskararen biziberritzean eragiteko zinez aktibo eraginkor berria. **Euskararen Etxea irekitzearekin batera, elkarteak izango du erreferentziatzko egoitza bat; eta herri-bizitzak ere irabaziko du nabarmen, sortu berria den eta inertiak astintzera datorren herri-eragile bat garatu eta sendotuko den heinean.**

EUSKARAZKO PRAKTIKA EGITASMOAK

Ibilbide oparoa egin da Astigarragan euskara praktikatzeko egitasmoei dagokionez. Mugarri izan zen 2013-2014 ikasturtea; egitasmoa Hizkide izatetik (bikoteka elkartzen ziren mintzalagunak) Mintzalagun izatera pasa zenekoa (mintzalagunak taldeka biltzen dira).

Harrezkero, gero eta jende gehiagok ezagutzen du ekimena eta ikasturtez ikasturte partaide kopurua ere nabarmen hazi da. Azken ikasturteetan, 5-6 talde osatu izan dira, astero-astero euskaraz praktikatzeko bilguneetan (20-30 lagun inguru).

Zilegi Eskolen bidez, ikasturtean zehar antolatutako ekintza osagarrietan, berriz, ikasturte bakoitzean 200 herritar inguruk parte hartu ohi du. Izan ere, azpimarratzekoa da azken urteetan Zilegi Eskolen bidez herriko eragileekin harremanak nabarmen sendotu izana; besteak beste, Emakumeon Etxearekin, Goldea Elkartarekin, Astigarragako Gazte Asanbladarekin, Zipotza elkartarekin edota Herri Eskolarekin, kasu. Azken urteetan, maiatzean ospatu ohi den Zilegi Asteak herritarren artean izandako harrera ere nabarmentzeko modukoa da.

Udalaren nahia da euskaraz zerbait jakin, baina bere gaitasun-mailagatik edota erabilera-gune eta aukera eskasiagatik erabiltzeko zailtasunak dituzten herritarrei euskaraz aritzeko ahalik eta aukera gehienak eskaintzea. Asteroko bilgunez gain, irteera, tailer edota aisialdiko bestelako eskaintzak eskaini ohi dira.

Astigarragan Euskara sustatzeko 2024-2029 Plan Estrategikoan jasotzen denez, ezinbestekoa da euskarazko praktika egitasmoei jarraipena ematea; eta zer esanik ez, familiei begira. Azken urteetako lanari eusteaz haratago, ezinbestekoa da jauzi kualitatibo bat ematea.

Gurasolagun egitasmoaren bitartez, guraso euskaldunak edota euskara ikasten ari direnak euren seme-alabekin euskaraz aritzeko egoera bertsuan dauden familiekin harremanetan jarri nahi ditugu; familia edota lagun giro erabat euskaldunean murgiltzeko asmoz, familia transmisioan bete-betean eragiteko.

Udalak ekimena udalerrian errotu eta haztea du helburu. Izan ere, datozen urteetako erronka nagusienetariko bat izango da udalerrian euskaraz aritzeko ahalik eta gune, espazio eta bilgune gehien eskaintzea. Hala, praktika egitasmoak sendotu, berrindartu eta herrian ahalik eta zabalkunde handiena lortzeko helburuz, herri-eragile gehiagorekin harremana indartzea lehentasunezkoa egitekoa izango da.

Zalantzarik gabe, Euskararen Etxea irekitzearekin batera, aukerak biderkatuko dira; bai jarduera-eskaintza zabal hori indartzeko, baita euskaraz praktikatzeko egitasmoak herrian zehar are gehiago hedatzeko ere.

Bestelako erakundeekin batera osatutako guneetako saioak hartzeko leku ere izango da Euskararen Etxea. Hau da, euskararen biziberritzean eragiten jarraitzeko, Udaleko Euskara eta Hezkuntza sailak hainbat erakunde-arterko mahaitan parte hartzen du. Eta Astigarragan lan-saioak egiten direnerako, estrategikoa litzateke Euskararen Etxera leku-aldatzea. Adibidez, eskualdeko gainerako udalerrietako euskara zerbitzuekin batera osatutako BURUNTZALDEA EUSKARAZ elkargunea hilean behin elkartzen da; herriz herri, txandaka. Gerta liteke ere, UEMAREN hainbat saio herrian egin behar izatea. Bada, garrantzitsua izango da, ahal den heinean, erakunde arteko lan-saio horiek ere Euskararen Etxera gerturatzea.

Eta esan gabe doa; ez dira gutxi Euskal Herri mailako euskararen sustapena eta erabilera bultzatzeko nazio mailako ekimenak; izan Euskaraldia, Korrika edota beste hainbat. Horiek

guztiak Astigarragara ekarri eta tokikotzeko ere, primerako aterpea izango da Euskararen Etxea.

Orain arte aipatutako jardun eremu horiek guztiak nola garatuko dira? Nola gorpuztuko? Ikusteke badago ere, suposatzea da aniztasun abaniko zabala: askotariko tailerrak, formatu txikiko antzerkietatik hasi eta kantugintza edota ikus-entzunezko proiektioetaraino, hamaika lan-saio, bilera edota ikastaro; euskarazko eskolak kasik egunero, baina baita motibazio edo ahalduzko prestakuntza saioak ere; mintzalagunen saioak, eragileen arteko topaketak, Euskararen Mahaiaren bueltan antolaturikoak edota Astindu Elkartearen ekinbideak; girotze kanpainak, aisialdi euskaltzalea indartzeko ekinak, kafe-tertuliak eta trebakuntzak bai, baina baita euskaratik eta euskaraz sortutako piezen aterabide liburu-aurkezpen, ipuin-kontalari, erakusketa, bertso-saio nahiz bakarrizketak ere. Bilerak, eskolak, hitzaldiak eta euskararen bueltako programak eta proiektuak.

Azken finean, euskararen biziberritzearen aldeko herri-mailako jardunbide denak aipatu genitzake; aldeztu aurretik aipatutako funtzioen sustapena garatzera datozen guzti-guztiak: orain arteko egitasmo denak eta sortuko diren berriak.

Ongi etorriak izango dira euskararen garabideari begira jaiotakoak; hizkuntza garapenari begira hiztunak aktibatu, euskararekiko atxikimendua sendotu eta komunitate-kontzientzia indartzera datozenak. Eta baita bestelako esperientziak partekatu, komunikatu, antolatu, asmatu, amestu, landu, pentsatu, hausnartu, aktibatu eta elikatzea datozen hazi eta lore guztiak ere.

5.1. Zergatik emakida bat?

Udalak euskararen biziberritzearen bueltako ekosistema osoaren erreferentziatzeko gune izatera datorren Astigarragako Euskararen Etxearen proiektua garatzeko euskararen etxea sortu du, eta proiektu horretan jaso ditu, udalaren gauzatuko dituen egitasmoaz gain, Astigarragako AEK euskaltegiarenak, baita bai Astindu sortu berri elkartearenak ere. Proiektu horren helburu nagusia delako hizkuntza-ekinbide integral eta berritzaileak sustatzea eta euskaltzaletasuna indartzea, euskararen erabateko garabidea edota normalizazioa lortzeko.

Astigarragako Euskararen Etxea programarako ezarri diren lan ildo batzuk Astigarragako AEK euskaltegiaren berariazko eta ohiko jarduerak dira, Astigarragako udalerrian urte luzez AEKk burutu dituenak. Jarduera nagusia helduen alfabetatzea eta euskalduntzea izan da, interes orokorreko helburua duena, euskararen erabilpena sustatzeko eta bertako kultura sustatzeko eta ezagutzera emateko jarduerak osagarri ezinbestekoz osatua.

Gainera, herri mailan, euskararen normalizazioan ekin eta ekin ari den eragile-erreferenterik baldin bada, hori da Astigarragako AEK. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatu bada, komunitatea aktibatzea eta hizkuntza-ingurune euskalduna indartzeko ahaleginik egin bada, AEKren ekina funtsezkoa izan da Astigarragan (ere).

Udalarentzat, lehentasunezko lankidetzak estrategikoa da Astigarragako AEKekin urte luzez eraiki eta elikatutako elkarlana. Izan ere, administrazioaren sustapen lana ezinbestekoa baldin bada ere, hizkuntza biziberritzeko beharrezkoa da norbanakoen, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartzea, elkar elikatzea eta sinergia berriak jostea.

Helburuetan bat gatozlarik, AEKk egiten duen lana bikoizteak edota horiek udalak bere kabuz emateak ez du zentzurik, egokiagoa eta eraginkorragoa izanik horiek Astigarragako AEK euskaltegiaren esku uztea.

Laburtuz, AEK bidelagun ezin hobea da herrian duen erreferentzialtasunagatik eta euskararen biziberritze prozesuan egindako ibilbide oparoagatik.

Lankidetzaz hori gauzatzeko moduari dagokionez, hortaz, emakida administratiboa hobesten dugu, udalaren eta eragileen arteko gobernantza eta elkarlana bideratu eta aipatutako proiektua gauzatzeko egokiena delako, formari, edukiari zein epeari dagokionez Halaber, emakida Astigarragako AEK-ri (Euskaraz Koop) egitea da egokiena, orain arteko ibilbidea, eskarmentua eta ezagutza kontuan hartuta.

Euskararen Etxearen proiektua garatzeko emakidak bi ildo nagusi hauek izango lituzke: bata, lokalaren kudeaketa (eragileen eta artikulatu edota eta aktibatu behar diren eragile eta taldeen erabilpena errazteko) eta bestea proiektuaren dinamizazioa (saretzea eta ahalduntzea). Emakidaren ezaugarri eta baldintzak emakidaren oinarrietan eta gainerako dokumentuetan finkatuko dira.

6. Jarraipena

Ezinbestean, Astigarragako Udalak bere gain hartuko ditu Euskararen Etxearen bueltako jardunaren jarraipen eta ebaluazio lanak.

Aldizkako bisiten bitartez egiaztatuko du azpiegitura edota ekipamenduak errespetuz eta ezarritako arauak betez erabiltzen direla. Halaber, ziurtatuko du Astigarragako Euskararen Etxearen emakida eta erabilera arautzen duen Erregelamenduan eta emakida baimentzen duen administrazio-agirian administrazio emakidaren onuradunentzat ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzen direla. Jakina, ez-betetzereen bat gertatuz gero, dagokion zuzenketa-neurriak edota zehapenak ezarriko ditu, beharrezkoa balitz, administrazio-emakida baliogabetzeraino.

Lankidetzan egingo dira ikuskaritza-lanak; kontuan hartuz administrazio-emakida baten onuradunak behartuta daudela Udalarekin eta honek izendatutako langileekin elkarlanean aritzera. Udalak eta Astigarragako AEK-k elkarlanean eta gainerako eragile, herritar eta erabiltzaileak kontuan hartuz, ziurtatuko dute Euskararen Etxeko programa behar bezala garatzen dela.

Eta, nola ez; Euskararen Etxearen jiran, euskararen biziberritzearen bueltako Astigarragako ekosistema berri-berrituaren inpaktu soziala ere neurtu beharko da; 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoaren azken ebaluazioa egitearekin batera, hurrengo zikloari begira, udalerrri mailako hizkuntza plangintza diseinatzeko. Alegia, ezagutu beharko da gizarte-eraginik izan ote den, eta zenbaterainokoa; eraldaketarik izan ote den, zein neurritan eta nolakoa.

Unean uneko diagnostikoa osatzeko, datuak bildu beharko dira; 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko adierazleekin batera, Euskararen Etxeko dinamika-adierazleak erkatuz. Horretarako, komeni da kudeaketa-sistema diseinatzekoan, inpaktua neurtzeko adierazleak aurreikustea.

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: Astigarragarantz Legegintzaldi Plana (2023-2027).
- II. ERANSKINA: Euskararen 2024-2029 Plan Estrategikoa.
- III. ERANSKINA: Astigarragako Udalean Euskararen erabilera areagotzeko plana. 2023-2027 (VII. Plangintzaldia).
- IV. ERANSKINA: Astigarraga. Koaderno demolinguistikoa. Euskara datuetan. 2025, ekaina (UEMA).
- V. ERANSKINA: Norantz doa euskara? Hego Euskal Herria 2036. Proiekzio demolinguistikoa. Laburpena. 2025, martxoa (Siadeco, UEMA).
- VI. ERANSKINA: Egokitzapen lanen argazkiak.
- VII. ERANSKINA: Planoa.